



EBBren Prentsa Bulegoa
EUZKADIko
PRENTSA IDAZKOLA



EUZKO ALDERDI JELTZALEAREN ADIERAZPENA

-EUSKARALDIA: 11 egun euskaraz-

Euskararen normalizazio prozesuak ibilbide oparoa izan du azken hamarkadetan, guztion elkarlanari esker. Eraitza aipagarria izan da, baina, prozesu guztiek bezala, argi-itzalak ditu: bada pozik egoteko arrazoirik, baita kezkatzeko daturik ere.

Azken neurketek baieztatu dutenez euskararen ulermena eta ezagutza zabaltzen ari dira. Nabarmen egin dute gora ezagutza-datuak eta baita ulermen datuak ere. Euskaraz hitz egiteko gai den gero eta jende gehiago dago.

Datu hauek aditzera ematen digute euskarazko harremanak areagotzeko baldintza onak daudela, baina, hala eta guztiz, erabilera ez da espero zitekeen beste hazi.

Herritarren artean euskararen erabilera sustatu eta praktika linguistiko berriak bultzatzen dituzten testuinguruak sortzeko beharra dagoela ikusten da. Eta horren harira sortu da Euskaraldia.

Euskaraldia ez da kanpaina bat, ezta euskararen aldeko jai edo ekintza soil bat ere. Euskaraldia ariketa sozial bat da, ariketa praktikoa. Eta ariketa praktikoa horren bitartez ikustarazi nahi da hizkuntza-harremanetan eragin daitekeela eta biziari gura da pentsonen hizkuntza-ohiturak alda daitezkeela.

Hizkuntzaren normalizazioaren ardura gu guztiona da, pertsonen eta erakundearen artean partekatutako ardura da, hain zuzen ere. Aktibatzeke garaia da. Ahobizi edo Belarriprest izan aukeratzeko garaia da.

EAJ-PNVk bere egiten du euskararen erabilera bultzatzeko helburua, horrexegatik, bat egiten Euskaraldiarekin; eta Ahobizi edo Belarriprest bezala aktibatzerari animatu eta ekimenean parte-hartzeko gonbita luzatzen die bai alderdikideei bai gainontzeko herritar guztiei ere.

DECLARACIÓN del PARTIDO NACIONALISTA VASCO

-EUSKARALDIA: 11 días en euskera-

El proceso de normalización del euskera ha tenido un recorrido fructífero en las últimas décadas, gracias a la colaboración de todos y de todas. El resultado ha sido destacable pero, como en todos los procesos, ha tenido sus luces y sus sombras: hoy tenemos motivos para estar satisfechos y satisfechas, pero manejamos también datos preocupantes.

Tal como confirman las últimas mediciones, la comprensión y el conocimiento del euskera se van extendiendo. Los índices de conocimiento, al igual que los de comprensión, han aumentado de forma considerable en los últimos años. Cada vez hay más gente capacitada para hablar en euskera.

Estos datos ponen de manifiesto que a día de hoy se dan las condiciones para incrementar las relaciones en euskera y, sin embargo, el uso de nuestra lengua no ha crecido en la medida que cabía esperar.

Existe, por tanto, la necesidad de generar contextos que impulsen nuevas prácticas lingüísticas y fomenten un mayor uso del euskera entre la ciudadanía. Con ese objetivo se ha ideado la iniciativa Euskaraldia.

Euskaraldia no es una campaña, ni es un acto a favor del euskera: es un ejercicio social, un ejercicio práctico cuyo objetivo es hacer visible que es posible incidir en las relaciones lingüísticas y transformar los hábitos lingüísticos de las personas.

La responsabilidad de la normalización lingüística es compartida entre personas e instituciones. Es responsabilidad de todos nosotros y de todas nosotras. Toca activarse. Toca elegir entre Ahobizi o Belarriprest.

EAJ-PNV hace suyo el objetivo de impulsar la práctica del euskera, por lo que se suma a la iniciativa Euskaraldia y anima e invita a su afiliación, y a la ciudadanía en general, a activarse y a participar en la iniciativa como Ahobizi o Belarriprest.